

ORIOKO

EUSKAL ALDIZKARIA

KarKara

10. zenbakia. 150 PTA. 1992ko martxoa-apirila

10-A



Garoa

- Kontsulta naturopata
- Sendabelarrak
- Elikagai naturalak
- Kosmetika

Eusko Gudari, 33 Tfnoa 13 17 77



TXOMIN

ARRAINDEGIA

Eusko Gudari, 42 Tfnoa: 83 27 47

ORIO

Auto Eskola

Telefonoa: 83 57 19

LITERATURA-LEHIAKETA 1992

V URTEA

Orioko Udaleko Euskara-Batzordeak urtero antolatzen duen eskolaumeentzako literatura-lehiaketak bost urte betetzen ditu aurtengo edizioarekin. Urtero fetxa hauetan bezala, martxan jarria dago dagoeneko eta parte hartu nahi duten haurrek apirilaren bukaera arte dute epea beren lanak aurkezteko.

Orioko OHOk haur guztiek har dezakete parte lehiaketa honetan, baita kanpoan ikasten dutenak ere.

Lehiaketaren oinarriak herriko bi ikastetxeetan eta Udaleko Euskara-Zerbitzuan lor daitezke.

LIZASO

ALTZARIAK

Eusko Gudari, 46 ☐ 83 07 84
Alta Lertxundi, 6 ☐ 13 33 01

ORIO

Marisko Biberoak

- Angulak
- Mariskoak
- Arrai finak

Ostalaritza Zerbitzua

Telefonoa: 13 12 97

AURKIBIDEA

KarKara
aldizkaria

Lege-gordailua:

SS 346/90

Tirada: 600 ale

Herriko Plaza, 1
20810 ORIO
Tfnoa: 83 15 27

Erredakzio-taldea:

Miren Etxeberria
Jabier Gaiton
Ana G. de Txabbarri
Ana Iturain
Iñaki Iturain
Eli Manterola
Nere Manterola
Jabier Zabaleta

Kolaboratzaileak:

Manu Etxeberria
Maurizio G. de Txabbarri
Jesus M. Karrera
Patxi Oliden
Loren Loidi
Gabi Gurrutxaga

Azken orrialdeko marrazkia:

J.R. Salsamendi

Argazkiak:

Ana G. de Txabbarri

Inprimategia:

Bizker (Usurbil)

Salmenta-lekuak:

Iturain Liburudenda
Ontza Liburudenda
Alostiza Estankoa
Tragozka Taberna
Il Gelato
Oriogi

- 4** Gutunak
- 5** Herrian galdezka: *zer iruditzen insumisoak ?*
- 6** Herriko kontuak
- 9** Kirolak
- 10** Erreportaia: *Oriotarrak eta soldaduzka*
- 12** Iritzia: *Bihotzeko asto gaixua.*
Gabi Gurrutxaga
Emakumea eta euskararen galera.
Loren Loidi
- 13** Osasuna: *Minbizia ezagutzen.*
Jesus Mari Karrera
- 14** Elkarrizketa: *Imanol Alguacilekin*
- 16** Denetik piska bat
- 17** Kolaborazioa: *Itsasoko kontuak: Kantauriko antxoa.* Mauri G. de Txabbarri
- 18** Azkena

Norbaitetik idatziren batekin, edo eta lan , karta edo bestelakoekin kolaboratu nahi badu, gurekin harremanetan jar daiteke edo bere lanak gure buzoian utzi. Mesedez lanak firmatuta bidali, ez bait dugu izenik gabeko ezer publikatuko.

KARKARAKO bulego ordutegia:

Asteartetan, 18:00etatik 20:00etara
Ostegunetan, 18:00etatik 20:00etara
Ostiraletan, 18:00etatik 20:00etara
Larunbatetan, 16:00etatik 20:00etara

GUTUNAK

KarKara

Herriko Plaza, 1
20810 ORIO
Tfnoa: 83 15 27

1992ko publizitate-prezloak

Modulo bat 1.000 PTA
Bi modulo 2.000 PTA
Hiru modulo .. 3.000 PTA
Lau modulo 4.000 PTA
Sei modulo 6.000 PTA
Orrialde erdia 8.000 PTA
(9 modulo)
Orrialde osoa 15.000 PTA
(18 modulo)
Azalbarrua ... 18.000 PTA

☞ **Prezio hauek zenbaki baterako balio dute. Urtean hamar zenbaki argitaratuko ditugunez, zenbaki guztietan beren publizitatea egin nahi dutenek % 10eko deskontua izango dute prezio hauen gainean.**

ertza

USAINDEGIA

**Cambridge Academy of
English**

Udako ikastaroak

Ikasi ingelesa Cambridgen

Informazioa: Pat Cowie

Eusko Gudari, 5 1. etz. Tfnoa: 13 21 31

IL GELATO

helatuak eta kruasanak

San Nikolas 17 TFNOA 131747

"Lagun" bati

Aldizkari honen 8. zenbakian agertu zen "Gurutx eta Aurorari" izeneko poesia dela eta, nere sorpresa adierazi nahi dizut halako ezaugarri eta edukineko testua argitara eman duzulako neri alde aurretik jakinerazi gabe, zeren eta, horren berri izan banu, bertan azaltzen diren zenbait "akats" —ustez ezagupen-etzari, eta ez fede txarrari, egotzi behar zalakionak— zuzendu egingo bait nituzkeen.

Suposatu nahi dut poesia horren helburua, modu tristean desagertutako bi herritar gogora ekartzea baizik ez zela eta, beharbada, populazioa drogen kontsumoaren ondorio beltzak direla eta "ernearaztea".

Lehen helburuari buruz, zera esan nahi dut: neretzat ez zen hain mingarria izango argitaratu aurretik jakinerazi izan balitzait, hirugarren pertsonak eman bait didate honen berri. Bigarrenari buruz, berriz, honako hau ohar-terazi nahi dizut: prebentzio-lana eskolatan egiten den osasunerako hezkuntza da, zeren eta drogen "alderdi beltzei" buruz informatzeak eragiten duena zera baizik ez bait da: gizartean larritasun-egoera sortzea eta gai hauen inguruan dagoen "morboa" gehitzea, eta ez bait du inoren ezeren kontzientziarik sortarazten.

Nere sorpresa eta mina berriro adierazten dizkizut eta eskatzen dizut, drogaren arazoa tratatu eta nere semearen aipamena berriz egin nahi duzunean, jar

zaitezela nerekin harremanetan eta hori egiteko modurik egokienari buruzko aholkua jaso.

Eskertuko nuke gutun hau poesia argitaratu zen sekzio berean argitaratzea. Agur t'erdi.

Miren Atxukarro

Udalari

Orain kontatuko dizuedan istorioa, Udal batek marginatu eta ahaztutako auzo baten istorioa da.

Anibarko Portua izena duen auzo honek, XXI mendearen atarian gauden honetan, ez du alkantarila-zergarik ordaintzen, hautsita dauzka espalolak orain dela zenbait urte eta hondakindegia ilegal baten ke eta kutsadurak jasaten ditu. Duen gauza on bakarra parke bat da. Parke hau, nahiz eta "gogorra" izan, auzoko umeek (populazioaren portzentai altu bat dena) jolas eta denborapasarako duten leku seguru bakarra da.

Baina egun batean, auzotarrek kezka eta atsekabez ikusten dute.

Udalak etxeak egin nahi dituela parkearen gainean. Ez ote dago Orion eraikitzeko beste lurrik? Hori hala balitz, tira! Baina, udaletxeko jaun-andreok, herriko ikastolatik autopistako zubia bitartean, beste Orio berri bat eraiki daiteke, oso ondo dakizuenez.

Hainbeste eta hainbeste urte gurekin ahaztuta egon ondoren, nola ausartzen zarete guregana etorri eta guk gehien maite duguna kentzera?

¡DEFENDA DEZAGUN GURE PARKEA!

**Anibarko Portuko
Komisioa**



HERRIAN GALDEZKA

Zer iruditzen insumisoak?

Ale honetan soldaduzkaz eta insumisoei buruz jendeak zer iritzi duen jakin nahi izan dugu. Honako hiru galdera hauek egin ditugu: 1.- Soldaduzka egingo al zenuke? 2.- Zergatik? 3.- Insumiso egingo al zinateke?



Eneko Peiro
20 urte

- 1.- Ahal badut ez.
- 2.- Denbora galtze bat iruditzen zait, eta gauza onak baino txarrak gehiago ateratzen dira.
- 3.- Berez nik jarraituko nuke, baina gurasoekin arazorik ez izateagatik seguruenen ez dut jarraituko.



Nerea Urdangarin
17 urte

- 1.- Ez.
- 2.- Niri soldaduzkak derrigorrezko ez lukeela izan behar iruditzen zait. Bakoltzak erabaki beharko luke.
- 3.- Kasu hartan egongo banintz, orduan pentsatu beharko nuke. Hori orain ezin da pentsatu.

Jose Manuel Agirresarobe
20 urte

- 1.- Egin behar dut, baina ez nuke egin nahi.
- 2.- Ez diodalako arrazoirik aurkitzen.
- 3.- Pertsonalki ez.



Gillermo Manterola
50 urte

1. eta 2.- 20 urte berriz edukitzeagatik, bai.
- 3.- Bai.



taberna - kafetegia

GABON

eusko gudariak
tfnoa: 83 06 09

banderila goxoak
hotzak zein beroak
ogitartekoak ere
ez dira nolanhikoak

PATXI

HARATEGIA

Telefonoa: 831837

DONIBANE

opil-okindegia

ABESLARI ORIO

BOLLOAK ETA PASTELAK

ARTISAU KALITATEA NAHI
BADUZU ZATOZ GURE
DENDARA

URAITZ
USAINDEGIA

KIROMASAJA ESTHETICIEN

ENDAIA 3 TFNOA 83 18 97

HERRIKO KONTUAK



Martxoaren hamalauetan etxebizitza sozialen aldeko manifestazioa egin zen

"Etxebizitza sozialak: soluzioa orain!" lemapean manifestazioa burutu zen joan den martxoaren hamalauetan Orion. Manifestazioa arratsaldeko 19:30etan hasi zen herriko plazan eta Orioko beheko kaletik buelta osoa eman ondoren berriro bertan bukatu zen. Antolatzaileek adierazitakoen arabera helburua Udalarari etxebizitza sozialen arazoa dela eta herrian dagoen kezka azaltzea zen.

Berrehun bat lagunek hartu zuten parte manifestazioan eta oihurik entzunena "Orion bizi nahi dugu" izan zen.

Akordioa Udala eta kooperatibaren artean.

Orioko Udalaren eta "Orioko etxegintza" kooperatibaren artean akordioa lortu da. Akordio honen arabera, Udalak ekaina bukaera arteko epea jarri dio bere buruari herriaren beheko partean etxebizitza sozialak eraiki ahal izateko lurra lortzeko eta, aldi berean, honako konpromisoa hartu du: baldin eta epe horretan lurrik lortu ez badu, kooperatibak hitzartuta dituen Goiko Kaleko Baratzaberrietako lurren errekalifikazioa lortzeko tramiteak hasiko ditu.

Bi aldeek ontzat eman dute akordioa.

Martxa erregulatua Orion Talai-Mendik antolatua

Apirilaren 5ean, igandea, Eskolen arteko V mendilehiaketaren banean, Orion martxa erregulatua izango da.

Goizeko zortzi erdietan izango da irteera ikastolatik. Hemendik Zakilaneko aldean gora San Martingo bidetik joan beharko dute parte hartzaileek. Hemendik aurrera, Erretzabal, Lertxundi, Txara, Gorostl, Benta (hemen hamaiketako izango da), Kukuarri, Andu, Itsaspe eta Hondartzatik, ibala jarrailuz, atzera berriz ikastolaraino.

Bai Orta ibalaren itsasoratzea eta bai Orioko itsas bazterrak ikusi ahal izango dituzte marxistek. Bidean, gainera, arbola ezberdinak ezagutzeko aukera izango dute eta, baita, zenbait sahas eder landatzeko ere.

Naturarekin harreman estuan eguna pasatzeko aukera paregabea izango dute, eguraldiak lagun.

Talai-Mendi Indar berriz lanean

Talai-Mendi Mendi-Elkartea indarberritu egin dela dirudi. Aurtengorako ekintza-programa zabala antolatu du. Udalaren dirulaguntza eskatzeko aurkeztutako egitasmoan honako ekintza hauek burutzeko asmoa agertzen zuten besteak beste: Alkoholik gabeko diskoteka igandetan minusbaliatuen lokalean, bideo-emanaldiak gazte eta umeentzat, dantza-ikastaroak, mendi-irteerak etabar. Guzti hauek, noski, orain arte antolatu izan dituen ekintzez aparte.

HERRIKO KONTUAK

Geroz eta lagun gutxiago itsasorako

Martxoan hasitako kosterak, aspaldian izandako arrantzele kopururik txikiena bilduko du. Fenomeno hau ez dagokio Oriori bakarrik, baizik eta Kantauriko kostalde osoan antzematen ari den arazoa da. Pasa da itsasoa dirua egiteko irtenbide egokia zen garaia, eta gaur egun, lanaren gogortasunak, alde batetik, eta irabazia ere ez dela hain handia, bestetik, eragin du jendeak nahiago izatea lanpostua lehorrean bilatzea.

Adibide moduan, Zeruko Ama untziak, ezin izan du itsasora atera kuadrila osatu ez duelako.

Kofradiak eskeini dizkigun datoak ere adierazgarriak inuitzen zaizkigu:

Oriok garairik onenean 24-25 bapote izan bazituen ere, orain 18 besterik ez dago itsasoan lanean aritzeko. Jende kopuruak ere beherakada antzekoa izan du: 380 oriotar baziren arrantzetatik zuzenean bizi zirenak, orain 280 besterik ez dira.



Udaleko notiziak

* **PROSPEKTIKER** etxeak Orioko etorkizuna zein izan litekeenari buruzko ikerketa egingo du Udalaren eskariz. Ikerketa burutzeko herritarren kolaborazioa behar izango dela adierazi digute Udalean.

* **EAKo** zinegotziek utzi egin dituzte Udalean zituzten bi Batzordeen Presidentziak eta baita Gobernu-Batzordean zuten lekua ere. Erabaki honen arrazoiak, otsailaren bukarako Plenoan adierazi zuten bezala, Alkatearen zenbait aktuzioekin dituzten desadostasunak izan dira.

* **Motondoko** zona industrialaren arazoa dela-eta, mahai tripartito bat osatu da honi konponbidea emateko. Mahala Udaleko, Gipuzkoako Foru-Diputazioa eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak osatuko dute.

Gozategi anal-arrebak bigarren saria trikitixa-lehiaketan

Asier Gozategik bere arreba Ainhoarekin bigarren saria irabazi zuen Arinarin kategorian "Alboka, rocka, joka" plezarekin, Euskadi Irratiak antolatutako trikitixa-lehiaketaren finalean. Finala Victoria Eugenia antzokian jokatu zen martxoaren 19an.

Irabazitako saria 50.000 PTAkoa izan zen.

Gozategitarrek porrusalda kategorian ere hartu zuten parte, nahiz eta hontan saririk irabazi ez zuten.

Enkartelada presoan alde

Kanarietako Salto del Negro kartzelan gose-greban zeuden presoan egoera salatzeke eta hauekiko elkartasuna adierazi nahian, enkartelada egin zen martxoaren 14ean eguerdi partean herriko plazan, Amnistiaren Aldeko Gestorek delhuta.

Kirolak

ITZiAR

Eusko Gudari, 23

☎ 83 31 03

ORIO

ITURAIN
okindegia

Ogia, bollitoak,
egunkariak eta
KARKARA

Aritzaga

ORIO

K2

HERRIKO KONTUAK

EUSKAL HERRIKO XXXII BIRA ORION

Datorren Apirilaren 5, 6, eta 7an, Txirrindulariak izango ditugu gonbidatu berezi Orioko kaleetan. Eta ez gainera edonolako txirrindulariak, baizik eta nazioarteko pelotoiko nagusienak. Besteak beste, Marino Lejarreta, Migel Indurain, Pelo Ruiz Cabestany, Gianni Bugno, etabar luze bat.

Hau dela eta, herriko zenbait toki erabilpen berezi horretarako egokituak egongo dira, eta antolaketak eskatzen duenez ez litzateke alperrikakoa gogoratzea noiz eta nola geratuko den dena.


Oriora autoz sartu eta ateratzeko, Txankako bidea erabili beharko dugu. Honez gain, autoak aparkatzeko lekuak hauek izango dira: Autopista azpia, hemendik futbol zelalaraino dagoen tartea, eta ikastola ondoko zabalunea. Gainera ezin izango da kobxerik utzi Plazako inguru osoan, Eusko Gudari kalean, eta Dikeko pasealekuan; antolatzaile eta propaganda kobxeentzat gordeta egongo delako edo txirrindularien bidea izango delako.

Hauxe izango da programa zehatza:

— Apirilak 5, igandea: arratsaldeko seiretan Biraren aurkezpena eta txartelak jasotzea egingo da Herriko Plazan.

— Apirilak 6, astelehena, ORIO-ORIO etaparen hasiera eta amaiera.

— Apirilak 7, asteartea, ORIO-AGURAIN etaparen hasiera.



ARGI-GAIAK

eletrizitatea

argi halogenoak

Iturbide, 11

Carmen

ARRAINDEGIA

ifnoak: 83 05 37 83 33 71

ALT XERRI

Jatetxea

Telefona: 83 07 62

Garmendia

aseguru-agentzia

☎ 83 44 66

Taberna-Jatetxea

KOLON TXIKI

Herriko plaza, 4

☎ 83 00 44 13 20 26



✓ Aurreko alean aipatu gabe utzi genuen arren, eta beraz beranduago eman, alpatzeko moduko iruditzen zaigu. Alaitz Lizaso, Gipuzkoako txapelketan, 1000 metrotako frogan hirugarrena geratu zen. Otsailaren 9an izan zen Anoetako pista estalian eta bere denbora 3' 27"koa izan zen.

✓ Legution jokaturako Espainiako Fondo Txapelketan, sei kilometro luzerako laisterketa, Orioko Lau le-mazaingabeko untxiak **urrezko domina** lortu zuen; Zabaleta, Bernedo, Iparragire eta Mikel Orbañanos izan ziren estropalariak. Horrez gain Orioko beste untxiek honako emaitzak jaso zituzten:

- 4 skull : 4.
- 8 lemazainarekin: 4.
- 4 lemazainarekin: 2.

Emakumeak ere frontoiko kantxara

Oriko frontoian neska batzuk bitzen dira Gipuzkoa mailan antolatuta duten emakumezkoen pala-txapelketa prestatzeko helburuarekin. Probintzila osoan hogeitamar inguru dira txapelketa honetako partaideak. Iaz hasita, horietako bost astean behin elkartu eta entrenamenduak egiten dituzte: Aizarnako Mertxe Gumbutaga, Aiako Arnala Zuloaga, Eli eta Maider Lasa eta, azkenik, Maite Redondo oriotarra.

Partiduak binaka jokatzem dituzte, herramientatzat paleta eta pelota maztoa erabiliz. Frontoi luzeaz aparte neska hauek trinketeaz ere ibiltzen dira. Denak federatuta badaude ere ez dute jasotzen inolako laguntzarik eta kezu dira komunikabideetan beren ihardueraren berri apenas azaldu delako. Oraingo ale honetan laburki alpatzen badugu ere, guk aldizkari honetatik aurrerantzean erme izango gaituztela agintzen diegu, okasioak horrenbeste merezi du eta.

Juan Mari Itsaso laguntzaille bila

Sobran ezaguna da Juan Mari Itsaso herriko neska-mutilekin pelota arloan egiten ari den lana. Baina urte askotako lanak edozel inekutzen du eta bere ordez eskupelotan irakasteko prestatuko litzatekeen herriko norbait nahiko luke Juan Mari. Modu honetan oraingo lana banatuz berak remontera dedikatu ahal izango luke. Guk lerro hauetatik bere nahiaren berri ematen dugu, laguntzeko prest leudekeen guztiei berarekin harremanetan jar daitezela eskatuz.

Herriko pelota-txapelketa dagoeneko martxan

Aurtengo herri mailako pelota-txapelketa martxan dago joan den martxoak hogeitabataz geroztik. Oraingo honetan hamahiru dira bertan parte hartzen duten bikoteak, eta batzuren eta besteen esperientzi eta trebetasuna kontutan hartuta, bi kategoriatan banatu dira: bederatzi bikote lehen mailan eta bigarren goan lau. Beti bezala, partiduak larunbat eta jailetan jokatu dira eta finalak Sanpedro aurreko asteburuan izango dira.

DORRONSORO
JANARIDENDA

ABESLARI, 3

TELEFONOA 83 09 37

ION
PINTAKETAK

Kanpokoak eta barnekoak

Abeslari kalea, 1-3. ezk. ☎ 83 09 37 Orio

Oriotarrak eta soldaduzka

“Baldin bazoaz nahi duzulako”

“Baldin bazoaz nahi duzulako”, hori da behintzat objetore eta intsumisoek eratutako taldeek diotena. Azken hilabeteotan hitzetik hortzera dabil gero eta gazte gehiagok uko egiten diola soldaduzkari. Ia oraintsu arte tabua izan da gai hau, alegia gazteak ez du pentsatu ere egin gai honetan aukera egiterik zegoenik ere; egin eta kito, gogoz kontra bazen ere.

IÑAKI ITURAIN

Gaur egun noloznahi entzuten dugu objetoreak daudela, intsumisoak epaitu dituztela, mobilizazioak egin direla hauen alde. Hego Euskal Herrian orain, hogeitazte-

tatik batek uko egiten dio garbi garbi soldadutzari, eta gero eta gehiago dira. Fenomeno berri honen aurrean zenbait alderdi politiko, sindikatu eta bestelako erakunde, gaz-

te hauen jarrera defendatzearen alde agertu dira, beraz gazteok askoz babestuago daude gizartearen aldetik militarren erreprestio logikoaren aurrean.

Orain dela aste gutxi, epaile batek sekulako garrantzia izan dezakeen erabakia hartu zuen intsumiso baten kontrako epaiketan: norberaren kontzientzia soldaduzkara behartzen duten legeen gaineratik dagoela esanaz, libre utzi zuen.

Agian gazte hauek gerra eta ejerzitorik gabeko mundu berri baten aintzindariak ditugu.

Eta Orion zer?

Orioko alkate izandakoa Francoren adiskidea zelako edo, gure herriko mutil askok soldaduzka Azorren egiten zuten garaitik, piska bat aldatu dira gauzak zerbitzu militarra betetzeari dagokionean. Garai batean soldadu ez joateko

arrazoi legalik ez zeukanak, edo gaitzen bat asmatu beharra zeukan, batzuk eroarena egin ere bai, edo Ameriketara alde egin behar zuen gure aitona Lontxo zenaren anai batek egin zuen bezala edo Benito Lertxundik izan zuen suertea izan behar zenuen, bere anaia Luis zena ezkondu egin bait zen Benito soldaduzkatik libratzeko. Bestela, gehienetan gogoz kontra eta militarren erreakzioari zitzaion beldurragatik, joan beste erremediorik ez zenukan.

Euskaldunok gure Foruak galdu genituenean beste gauza batzuren artean ordurarte Españako armadara ez joateko eskubidea galdu genuen. Geroztik, huraxe izan da Orioko mutil askorentzat derrigorrezko erdaltegia. Euskeraz besterik ez jakiteagatik gorriak ikusitakorik izango zen bat baino gehiago, kuartelko beste soldaduen adar jotzeak eta irainak zirela eta.

Txiritak ederki asko adierazi zuen bertso batean Donostiako Victoria Eugenia izandako txapelketan armadari zion maitasuna:

Zenbat errezo egin izan det nere denboran elizan, ta pozik nago ikusirikan pakian nola gabiltaan. Ni naizen bezin kobarderikan inor ezin leike izan, semeak gerra ez joateatik mutilzar gelditu nintzan.



Hauen garaian pentsa ezina zen soldadu ez joatea

1969 Urtean

ERREPORTAIA

Baina gaur egun askok beldurra galdu diete militarrei eta soldadu ez joatea erabakitzen dute. Orion ere baditugu holakoak, ondorengoak horietakoak dituzu, bakoitza bere arrazoi eta egoera desberdinekin.



ASIER GOZATEGI

Trikitixa jotzeaz gain Gasteizen erakutsi ere egiten duen gazte honek ez dio inolako zentzurik ikusten soldaduzkara joateari.

"Mila era daude ez joateko, eta joaten denaren arrazoia beldurra eta informazio eza da". "Inork joan nahi ez eta denak joan, zer gertatuko litzateke denok uko egingo bagenio?" Argi utzi nahi du intsumisioa ez dela kartzela, "%1 besterik ez da izaten espetxeratu, baina hala tokatuz gero merezi du giltzapean egotea, ondorengoentzat mesedagarri izango delako".



RAFAEL GONZALEZ DE TXABARRI

Arraunlari hau intsumisioa da soldaduzkaren ordezkari izan dauden ordezkari sozialarekiko ere. "Nik ez dut sinesten aberria eta holako gauzetan eta gutxiago horren alde armak hartu behar direnik, gauza horiek ez dira sartzen nere baloreen artean". "Beldur naiz zer gerta daitkeen, baina oso garbi daukat ni ez naizela joango; ez ejerzito honetara, ez beste inolako batera ere".

Bere ustez ordezkari sozial hori zigor moduan asmatua da.



IÑIGO ZALDUA

Gazte honek bere burua objetoretzat jo zuenean gaisotasun bat ere alegatu zuen eta libre da soldaduzka edo ordezkari egitetik.

"Kristau bezala Jaungoikoaren hitza betetzen saiatzen naiz, eta lagun urkoa maitatu behar dut, neri ez zait iruditzen gerra ikastea horrekin bat datorrenik, nere kontzientzia ez litzateke lasai egongo Jaungoikoaren hitzaren kontra joanda, nere ustez pakea lortzeko maitasuna behar dugu eta ez lagun urkora mina egin".



LUIS MARI AZKUE

Fagor kooperatiban lanean ari den Luis Mari 1979 urtean, 18 urte zituela, erabaki zuen bera ez zela soldadu joango. Seguru asko Azkue izango da Orioko lehen objetorea. "Arrazoi filosofiko eta nere kristau fede heziketarik erabaki nuen hori".

Luis Mari 1989ko amnistiak harrapatu zituen 20.000 objetoretako bat da eta libre dago, inolako obligaziorik gabe. "Nere ustez joan nahi duena joan dadila baina irtenbide jatorra eman behar zaie joan nahi ez dutenei". Berari armadarik gabeko mundua gustatuko litzaiokeen arren gaur egun utopiatzat jotzen du soldaduzkarik gabeko gizarte.



JON SARASUA

Ez da hain gauza konplikatu soldaduzkaren itzala, bi hitzen bueltan idatziko det nere iritzi apala. Intsumisioa ez dana hemen sumiso bihurtzen dala, bietatik zer izan nahi duen bakoitzak ikus dezala.

Mutil bakoitzak aukera beza mus eman edo hordago, aholkurikan ez ematea nik nuke askoz nahiago. Ni intsumiso bihurtu nintzan, jultzioaren zai nago, hori esanda nere partetik guztia esanda dago.



Gabi Gurrutxaga
"Hangunberri"
Euskara-
irakaslea

Bihotzeko asto gaixua

Kafe bat hartzen ari ziren Bordatxo aurrean, kanpoko mahaietako batean. Eguraldi ederra eta goiz oraindik dendak irekitzeko.

— Te he visto a la mañana pasar delante de la Eskolastika pero estaba con la madre y no te he hecho caso. Ya sabes cómo se pone: «Lagunekin geratzen hatzen bakoltzean, lau ordu behar izaten ditun, ikusiko dun, bai, geroxeago ere, goazeman!»

— Pues la mía suele estar deseando de hablar con la gente que conozco. Si no me doy cuenta, me suele avisar ella: «Hor zihon hire laguna, ez al dion kasorik egin behar?»

Lagun bat hurbildu zaie sila-kotxe batean umea duela. Urnari jeisten laguntzen dion bitartean...

— Kaixo, arratsaldeon!

— Hoi! Llevas un vestido nuevo, no?

— Sí, aspaldi erositakoa dun, baina ez ninan gaur arte jantzi. No me... no sé... no me encontra

— Pues te queda muy bien. Non erosi dun?

— Donostian erosi ninan medikutara joandako batean. Eskaparatean ikusi ninan eta pentsatu ninan, me voy a probar. Allí me gustó, pero luego... Ion, ez zaitetz kamiora atera, etorri!

— Igual es por las luces de la tienda, o. A mi también me ha solido pasar. Pues ya me gusta.

— ¿Qué vas a tomar?

— Un solo. Egon hadi, neronek ekarriko dinat... y así, de paso, le cambio al niño. ¿Qué queréis vosotras?

— Yo ahora, nada.

— Yo acabo de tomar.

Toldoen itzala eskertu egiten zen abuztuko bazkalondo bero hartan. Goxo-goxo nengoen eta aspaldiko, ez horratio gaurkotatua galdutako, abesti bat nenbilkien buruan: «Bihotzeko asto gaixua, malkos tiraba cuando murió...»



Loren Loidi
Euskara-
irakaslea

Emakumea eta euskararen galera

Martxoa, morez jazten den hilabetea dugunez, emakumea ardatz duen gai bati heltzea ondo logokeela inuitu zait.

Horretarako, "Emakumearen aldaketa psikosozialaren eta euskararen galeraren arteko interferentziak" izeneko artikulua aipamena eginez nere iritzia ematea bururatu zait.

Inguneko kultura indoeuropearrak patriarkal eta indibidualistak izanik, euskal kultura mendeetan zehar matriarkal eta komunitarioa izan da eta bertan Barandiaranek zioen bezalaxe "emakumea, lan, erlijio eta etxeko ardatza izanez gain, ezer baino lehen euskal psikismoaren ezaugarria da, abesti, legenda, mito, errito eta abar luzean". "Emakumea beraz, hizkuntza eta kulturaren transmisioan ardatza izan da".

Gure euskal izaerak galera handiak jasan ditu, aldaketa handiak, aintzinako sinismen eta pentsamoldeak baztertu eta mundua ulertzeko modu berriez jabetu ginen (erlijio zein politiko mailako aldaketek eraginik). "Emakumea ordurarte etxeko gobernari gisa rol garrantzitsua jokatzetik, etxea bait zen ardatz ekonomiko eta sozials, sukaldara txokoratua izango da". Hau izango da emakumeari ezarritako rol berria, sukaldara, haurrak, etxea, mundu pribatua, kaleko lan mundua gizonaren ardura bilakatuko delarik.

Edozein esparnu sozialetan urteetan zehar erdara besterik ez zegoen eta euskarari mundu afeltiboa zegokion, etxeko erabilera, eta jakina, emakumeak hor betetzen zuen rola ezinbestekoa zen. Gaur egun ordea, garbi dago euskarak neurri handi batetan esparnu hori ere galdua duela. Emakumea ez da hizkuntzaren transmisioan par-

te hartzen duen igorle bakarra, etxetik kanpo ordu asko ematen ditu, gizonak beste hainbeste lan egiten badu, eta bestela ere hortxe ditugu eskola, telebista eta abarrak.

Gure gazteek nagusiki darabilten hizkuntza zein den ikusirik argi dago emakumeak askotan alde batetara utzi duen transmisio lan hori beste batzuk bete dutela, urteetan zehar eta piskanaka piskanaka erdarak (eta horrekin batera erdal kulturak, noski) etxetik kanpoko zein barneko esparnu guztiak janak dituela, etxe barnean (hor besterik ez egotea tamalgarria izanik ere) erdara (erdal telebistak, erdal liburuek, erdal aldizkariak eta erdarazko elkarrizketak, jakina) jaun eta jabe bihurtu zaigu.

Hizkuntzaren ikasketa ez da eskolaren lana soilik, ikastola zein eskolara bidaltze hutsarekin ez dugu gure betebehara burutu. Emakumeek ez badute bere kultura harro bizi, gaurko haurrek bigarren mailakotzat jasoko dute eta etorkizunean erdararen aldeko aukera egingo dute.

Gaur egungo gizarte "standarizatu, akulturizatu edo hobe esanda anglosajoi kutsuko" honetan gure hizkuntza eta kulturaren transmisio lan horretan gizon eta emakumeok dugun betebehara zein den jakinik, euskal gizarte matriarkal haren aztamarik geratzen bada horri helduko nioke nik. Sasoi ez hain ilun haietako istorio, bertso, kanta, eta abarrez bete ditzagun ahal dugun neurrian behintzat, telebistak erdal istorioez (nahiz eta euskaraz itzuliak izan) betetzen dituen arratsaldeak, gure ama eta amonek sutondoan jesotakoak guk berontzi elektrikoan ondoan kontatuz etorkizuneko euskaldunak ahalik eta osoenak izan daitezten.

Jesus Mari Karrera
Medikua



Minbizia ezagutzen

Gero eta argiago dago, tumore gaizto askoren agente eragileak neurri handian kanpoko faktoreak direla. 1984ean, adibidez, Estatu Batuetako Minbiziaren Institutu Nazionalak egindako minbiziarekin lotutako arrisku-faktoreen sailkapenean, elikadurarekin erlazionaturako atxekitzen zizkien portzentaiarik handienak. Institutu horrek honela banatzen zituen **arrisku-faktore** horiek taldeka:

MINBIZIARI LOTURIKO "ARRISKU-FAKTOREEN" TALDEAK (National Institute of Cancer, EEBB 1984)

Elikadura-faktoreak: %35

Tabakoa: %30

Ondo ezagutzen ez diren faktoreak: %15 (%6 faktore genetiko-hereditarioak)

Birusak: %5

Lanbidearekin erlazionaturiko faktoreak: %4

Erreadiazio aktinikoa: %3

Alkohola: %3

Ingurugiroaren kutsadura: %3

Elikadura-gehiagarriak: %1

Botika eta prozedura medikoak: %1

Dena den, datu hauek ezin dira soilik (isolaturik) hartu.

Minbiziaren eragina aztertzerakoan gizarteak azken urte hauetan osasunarekiko duen ikuspegi berria ea bizitza luzeagotzeko itxaropena ere, aurreko faktore horiekin batera kontutan hartzekoak dira.

Baina faktoreak faktore, egia da estatu-mailan, azken mende honetan, tumore gaiztoen ondorioz hildakoen tasak gorantz doazela: mende hasieran heriotz guztien %1,3 zen minbiziagatiko heriotza, 1950ean %16,9 eta 1979an berriz % 19,6 izatera iritsi zen.

Sexua kontutan hartuz gero, hilkortasuna gero eta handiagoa da gizonezkoengan, biriketako minbizia nagusitzen delarik, eta baita emakumezkoengan ere, bularreko minbiziaren ondorioz.

Urteroko minbizi berriei dagokenez, Minbiziaren Erregistroek adierazten digutenaren arabera, estatu espainolean 100.000 biztanletatik 250-300 bitartean dago oraindik zoritxarrez.

Aurreko idatzietan genion, ze neurri izango liratekeen, elikadurari buruz, gorputza osasuntsu zaintzeko egokiak; era berean esan behar genuke, minbiziari aurre egiteko ere ballagarriak diruditela.

Baina, ba dira oztopoak osasun publikoa areagotzeko arlo honetan:

Adibidez:

- Minbiziaren aurkako dietarik ez egotea.
- Elikadura-produkzioaren eta munduko biztanleriaren arteko desproporzioa.
- Ekonomikaren atzerapena.
- Elikagaiak produzitzeko arazoak.
- Gizarteak jan-edanerako dituen ohiturak aldatzeko eragozpenak.
- Elikadura eta mantenuaren arloan heziketa sanitarioaren garrantzia.

URBAZTER

Aseguru eta bidai agentzia

San Nikolas kalea, 8 ☎ 13 33 14

Indar GYM

— Gimnasioa —

Katxas jarri nahi baduzu, zatoz guregana!

HARAGIA GUSTORA JAN
NAHI BADUZU EROS EZAZU...

Kepa Loidi

harategia urdaitegian

Pelotari, 1 Tfnoa 83 25 65



ORRAZKERAK

AITA LERTXUNDI, 22
TFNOA. 83 12 61

Beste hainbat haurren moduan Imanolek ere futbolari ekin zion, eta gaur, hogeitabat urte beteazear dagoen orotar gazte honek, ladanik errealtate bihurtu du bere ametsa...

MIREN ETXEBERRIA

KARKARA.- Noiz, non eta nola hasi zinen futbolean?

Imanol Alguacil.- Txikitandik auzoko lagunekin egunero aritzen nintzen futbolean, georago ikastetxeko taldean, eta azkenik, Orioko Futbol Taldean Errealak deitu arte.

K.- Orioko Futbol Taldean aritu zinean, ekipo ona al zenuten?

I. A.- Egia esan, nahiko ongi ibiltzen edo defenditzen ginen eta gogoan dut torneo bat ere eskuratu genuela.

K.- Polita al da futbolaria izatea ala gogorra?

I. A.- Niretzat polita da, gustokoa dudana gauza bait da; baina ere berean nahiko gogorra, ezin bait dira nahi diren gauza guztiak egin, adibidez, parrandak... Beno, parrandak egin... egin daitetzeke, baina nolabaiteko presioa jasaten dugu jendearengandik.

K.- Eta fama, gustokoa al duzu?

I. A.- Ez zait fama gus-

Imanol Alguacil, futbolaren arrakasta



tatzen, beste edozein mutiko bezalakoa naizela kontsideratzen dut.

K.- Zeinek hobeto, Boronat ala Toshackekin?

I. A.- Boronati nire debuta eskertu behar diot; eta Toshack-i, berriz, lehenengo taldera igotzeko edo bertan jokatzeko aukera.

K.- Zenbat orduz entrenatzen duzue astean? nolako entrena-

menduak egiten dituzue?

I. A.- Aste guztiak ez dira berdinak, baina egunero ordu t'erdi edo entrenatzen dugu. Denetarik egiten dugu, bai korrika, bai baloiarekin... baina batipat baloiarekin.

K.- Kortak esaten du Orioko arraunlariek zuek baino askoz preparazio hobea dutela, adibidez korrika irabazi egiten

dizuetela, zer diozu?

I. A.- Nire ustez egia da, egunero entrenatzen bait dute eta gogorrago. Dena dela, oso desberdina da baloiarekin edo baloirik gabe korrika egitea.

K.- Zure taldekideen artean zein duzu laguna edo gustokoa?

I. A.- Orokorrean guztiak ondo, baina nirekin lehen taldera igo diren gazteekin batez ere, eta hauen artean Andoni Imazekin.

K.- Kontra izan dituzun jokalarien artean, zein izan duzu zailena markatzen?

I. A.- Asko izan dira, baina Bartzelonako Stoichkov iruditzen zait izan dela zailena, oso odol berokoa eta azkarra bait da. Gehien gustatzen zaidan jokalaria Stoichkov da.

K.- Egia esaten al dute gogorregia zarela diotenen?

I. A.- Hori jendeak erabaki beharko du, baina futboleko gogorra izan behar da. Nik hartu baino lehen beraien hartu behar dutela erakutsi didate niri.

K.- Ona izan al da euskal futbolarentzat eta Errealarentzat atzerritarrek ekaritzea?

I. A.- Euskal jokalarientzat ez, guri postua kentzen bait digute; Errealarentzat, ordea, onerako izan da, taldea indartu egin bait dute.

K.- Zeintzuk dakite

**"Ez zait fama gustatzen,
beste edozein mutiko
bezalakoa naizela
kontsideratzen dut"**

euskaraz Errealeko jokalarien artean? sekula egiten al duzue zuen artean?

I.A.- Ziur ez dakit, baina talde erdiak edo hitz egingo du. Egia esan, beste taldekoek ez ulertzeko hitz egiten dugu euskaraz.

K.- Zeinek irabaziko du aurtengo liga eta kopa?

I.A.- Liga, Bartzelona eta Madrildarren arteko indar-neurketa izango da; esan behar dut Bartzelona dela nere favoritoa. Koparen garailea nor izango den asmatzea oso zaila da, partidu batetan jokatzeko bideak da dena.

K.- Nola geldituko da aurtengo Erreala?

I.A.- Oraindik jardunaldi batzuk gelditzen dira baina gure asmoa UEFArako postua lortzea da; bide honetatik goaz eta helburu hori lortu nahi dugu.

K.- Zer egingo zenuke Bartzelona, Madril... bezalako ekipo batetan jokatzeko aukerarik bazenu?

I.A.- Jokalari guztiak bezala, talde handiengan jokatzeko izan da gure ametsetako bat eta, be-

raz, begiak itxita ere joango nintzateke. Arazoa Orioko herria uztea litzateke, nere lagun guztiak hemen ditudalako.

K.- Zergatik ez dago erreionaleko ekiporik Orion?

I.A.- Hau nere ustez Direktibaren esku dago, agian

"Gehien gustatzen zaidan jokalaria Stoichkov da"

K.- Nola ikusten duzu futbola Orion, federatuak eta plaieroak?

I.A.- Talde federatuak gazteentzako bide on bat dira, beraien lehen talde serioa bait da aurrera jarraitzeko; plaierotakoa, aldiz, oso ondo iruditzen zait, Orion ez bait dago nagusi-entzako talde federaturik.

diru arazoa delako edo beste motako arazoak dituztelako. Baina nere ustez Orion jendea badago taldea ateratzeko, ikustea besterik ez dago Orioko jendea nola joaten den beste herritara futboleko jokatzeko; eta hau gauza penagarria iruditzen zait.

K.- Futbolaria ez bazi-

na, zer gustatuko litzazuke egitea?

I.A.- Eskola eta futbola batera eramatea oso zaila egiten zitzaidan eta futboleko jokatu ahal izateko eskola utzi beharra izan nuen. Baina hemendik aurrera zerbait pentsatu beharko dut. Futbolari baten bizitza nahiko laburra bait da.

K.- Futboletik kanpo, nola ikusten duzu Orio, zure herria, zein dira zure ustez bere problema nagusiak?

I.A.- Egia esan, orokorrean Orioko herria ondo ikusten dut, baina etxebizitzaren falta nabaria da, batipat gazteentzat.



Orioko Futbol Taldeko bere lagunaren artean

SARASUA ERRETEGIA

Berezitasunak: -Arrai zopa
-Arrai eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29
83 00 05
Tfnok: 13 25 32

BORDATXO

Taberna

☎ 13 30 14

DENETIK PISKA BAT



EZETZ EZAGUTU! lehiaketako irabazlea Teresa Uranga izan da oraingo honetan. Argazkian agertzen da bere senarrarekin, Itsas Ondo jatetxearen aite ondoan.

Oraingoan 120 karta heldu zaizkigu gure erredakziora; badirudi ez dagoela galdera zailik zuentzat. Beraz, animo! ea hurrengo afaria zuentzako den.

Zorionak

Ainhoa eta Asier Gozategiri gure ZORIONAK, hain gureak diren musika eta doinuei gaurkotatuna eta aide berria emateagatik, guztion gozamenarako.

Zoriotxarrak

Hilero-hilero KARKARA banatzen diegu zenbait harpideduni, baina hauetako askok ez dute jasotzen: misterio honen giltza ezagutu dugu azkenik. Espabilatu asko dagoela eta oso iaioak, berea ez den KARKARA besteen buzoietatik harrapatzen inongo lotsarik gabe. Beraz, gure zoriotxarrak eta haserrea.

OTSAILEAN HILDAKOAK

Frantzisko Arregi Iturtzaeta, hilak 2an.
Maritxu Azkue Irazu, hilak 23an
Jose Martinez de Alegria, hilak 26an.

OTSAILEAN JAIOTAKOAK

Idoia Etxabe Arruti, hilak 5ean.
Borja Mena Salsamendi, hilak 9an.

LIZASO

ERLOJU eta
BITXI DENDA

Kala, 3

Tfnoa: 83 10 90

AURRERA

disco-taberna

ORIO

Arkaitz

TABERNA

Ogitartekoak, kaxuelitak eta
Orioko pintxorik hoberenak

Abeslari kalea

KOLABORAZIOA

ITSASOKO KONTUAK: Kantauriko antxoa

Negua lehorrean pasa eta gero, arrantzaleak abiatu dira bere ontzietara. Martxoaren lehenengo egunetan hasiera eman zaio antxoaren kosteari eta kanpaina eztabaida artean hasi da.

LEHENDABIZIKO

harrapaketak antxo txikiez osatu dira, eta, horixe dago arazoa, ontzlek arraina ekartzen badute ere, honek ez du lonjetan saltzeko neurria ematen. Itxuraz, pentsatzen dut, azkarregi hasi genituen arrantza lanak.

Azken urte hauetako kanpainek ere bateko edo besteko gora-beherak izan dituzte eta badirudi aurten ere ez garela libratu. Esan egin behar da antxorik gabe geratzen ari garela, espezie hau dezagertzeaz dagoela eta arazo hau aztertu beharra dago.

Mauri G. De Txabarri

Arazo hauek piska bat ulertzeko Kantauriko antxoaren biologiaz hitz egingo dugu.

Urte guztian Garonako inguruan aurki genezake espezie hau. Negu bukaeran ur sakonetatik igo eta Bizkaiko Golkoko hegoaldean azaltzen zaigu, gure plataforma eta kantiletan. Bere "gonadak" heltzen doazen neurrian gero eta "cardumen" (multzo) handi eta mardulagotan biltzen dira.

Maiatza inguruan hasten dira arraultzak erruten eta hau oso modu berezian egiten dute. An-

txoak bere gorpuzetik kanpo egiten du ernalkuntza: multzo handietan pilatuta joaten dira mantso-mantso igeri eginenez, emeak taldearen buruan jartzen direlarik eta arrak atzean.

Orduan emeek beren arraultzak kanporatu egiten dituzte, eta alde batera baztertuz, tokia uzten dute arrek arraultz horiek emal ditzaten. Bi edo hiru aldiz egiten dute hau periodo honetan.

Hau egin eta gero, antxoak mendebaldera jotzen du, Bizkaia eta Santanderreko kostetara.

Ekaina bukaeran, errutea egin ondoren, erreproduktoreak ur sakonetara joaten dira. Horrela, arrantza bukatzen da hurrengo udaberriarte.

Antxoaren kostera San Jose aldean hasi eta

Ekaina arte luzatzen da.

Antxo jaloberrilak gure kostetan sakabanatzen dira udaran zehar. Iraila bukaeran, piska bat hazita gero, atunerako beita bezala harrapatzen da.

Ez dago aipatu beharrik zenbaterainoko garrantzia duen kanpaina honek gure arrantzaleentzat.

Urteik urtera, harrapaketak jeisten ari dira eta etorkizuna beltza ikusten da.

Antxo-arrantzak jasan duen beherapena ulertzeko zenbait faktoreren eragina aztertu beharrezkoa izango litzateke. Adibidez, gehiegizko arrantza, flota pelagiko frantsesa, itsasoaren kondizio bereziak, kontaminazioa, etab. Baina beste batetarako utziko dugu azterketa hau. □



Etorkizun beltza du antxo arrantzak



Irudi Zentroa

Kale Nagusia, 17

jaunartzeak-92

Eska itzazu eguna eta ordua
Argazkiak

Zarautz

Tfnoa: 13 30 03

GURE TXOKO

TABERNA

ARITZAGA KALEA

AZKENA



EZETZ EZAGUTU! lehiaketa

Aurrekoan bezala futbolariak ditugu gure hil honetako argazkian. Bordatxo taldeko jokalariak dira bertan agertzen direnak. Aurten, apirilaren 2an, beteko dira 25 urte txapeldun geratu zirela Zarauzko Plaleroetan. Baina gure galdera ez da denok pentsatzen ari zaretena, ez jauna. Jakin nahi duguna zera da: futbolariak jantzita daudenak aparte, **jende dotore** dexente agertzen da argazkian, hamabi lagun dira guztira, **hauen izenak** eman behar dizkiguzue.

Badakizue asmatzaileen artean bi pertsonarentzako afari ederra zozketatuko dugula. Afaria, orain arte bezala, **Itsas Ondo Jatetxean** izango da.

Erantzunak apirilaren 14a baino lehen bidali behar dizkiguzue ondoko helbide honetara. Zorte izan!

KARKARA aldizkaria
Ezetz ezagutu! Lehiaketa
Herriko Plaza, 1 (Udaletxe atzeko karkara)

ITSAS-ONDO

Bataioak, jaunartzeak, negozio eta talde bazkariak



kaisa kalea, 7
tfnoa: 13 11 79

TXAPELDUN ARDOAK

Almazena eta bulegoak
Eusko Gudari ORIO
Telefonoak: 83 59 52 83 03 86
Etxeak: 83 29 04 Faxa: 83 59 52

Gailur Bodegak

RIOJA JATORRIZKO DEITURADUN ARDOAK
ARDANDEGI SOLAR GAILUR

ERRASTI ANAIK

Bodegako Tfnoa: (941) 10 91 58
Carretera Villabuena
BAÑOS DE EBRO

"CAVAS HILL" ETA "ILAGARES" NAFARROAKO JATORRIZKO DEITURADUN ARDOAREN ORDEZKARITZA



Izarra

Bideo-produkzioak
Hi-Fi TV Bideoak
LPak, CDak eta zintak
Izarra Atorrasagasti

Aritzaga kalea 5
Tfnoa: 83 38 81

ERRUSTA taberna

Aritzaga, 1 ORIO

EROSLE
AUTOZERBITZUA

**OLIDEN
HARATEGIA**

EUSKO GUDARI, 2

TFNOA 83 10 86

**URANGA
BURDINDEGIA**

Eusko Gudari 7
tfnoa 831236

KarKara

aldizkaria
tfnoa: 83 15 27


**Antilla
taberna**

Abeslari, 2
Tfnoa: 83 07 50

Orio's Shop

EUSKO GUDARI, 17 TELEFONOA: 83 12 44

- * Erretormen ondoren berriro zabalik
- * Estilo berria
- * Moda gaztea



P. Salsamendi

ORIO-1914